

## Proiektuaren deskribapena

Gure proiektuan sortuko dugun produktua poltsa bat da. Poltsa honek edukiko duen berezitasuna argiak dira. Argi hauek poltsaren barnealdean kokatuta egongo lirateke, alboetan josita. Enpresaren izena **ILI** izango da.

Argi hoiak beteko duten funtzioa honakoa izango litzateke: poltsaren barnealdean gordetako objektuak aurkitzea erraztea. Askotan, hainbat gauza gordetzen direnean poltsa barnean, zaila egiten da haiek aurkitzea eta argien bidez, hobeto ikusi ahalko litzateke barnean dagoena. Behar hori asetzea bilatzen dugu produktu honekin.

Gainera, diseinu eksklusiboak eskainiko genituzke gure poltsetan, MISAKO enpresaren eskutik. Kalitate aldetik maila handiko materialak eskainiko genituzke, poltsaren materiala eta argien kalitatea, PHILIPS markakoak izango liratekeelako.

Bi enpresa hauekin kolaboratuz, kalitatea, originaltasuna eta fama lortuko genuke. Gainera, gizartearen zati baten (bi enpresa haiei erosten dietenak) fideltasuna lortuko genuke.

